

22/13 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Begoña Cabria
Lierni Lizaso
Mari Tere Ojanguren
Idoia Pujana
Eduardo Ubieta
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022ko urriaren 27ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **2022-23 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako kidegoetako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoko LPZk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

EAEko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak lanpostuen zerrendak arautzen ditu II. tituluaren I. kapituluan, irakaskuntzako funtzio publikoaren egitura eta antolaketari buruzkoan; zerrenda horien oinarritzko printzipioak adierazten ditu, baita zerrendak egiteko jarraitu beharreko prozedurak ere.

Parametro hauek identifikatzen dituzte dekretu honi erantsitako zerrendetan azaltzen diren lanpostuak: espezialitatea, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasuna. Hizkuntza-eskakizunak hizkuntza-ereduen arabera zehazten dira, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan (apirilaren 2ko EHAA) ezarritako proportziak beteta; dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuak aldatu zuen (urtarrilaren 20ko EHAA), eta arautu egin zuen nola dekretu hori irakasleen lanpostuei. Helduen ikastetxeetako lanpostuei hizkuntza-eskakizunak jartzeko, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan ezarritako irizpideak jarraitu dira.

II.- EDUKIA

Dekretu proiektu honek 11 artikulua, 10 xedapen gehigarri, 2 azkenak eta 11 eranskin ditu.

1.etik 5.era bitarteko artikuluek ikastetxe mota desberdinetako Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasleen lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen dituzte. Bigarren Hezkuntza, HHE, Hizkuntza Eskolak, Musika Kontserbatorioak eta Arte Eskolak I.tik V.era bitarteko eranskinetan daude.

6. artikulua Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetara atxikita dauden erlijio irakasleen LPZ jasotzen du, VI. Eranskinean zerrendatuta dagoena.

7. artikulua VII. Eranskinean azaltzen den Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoaren LPZ onartzen du.

8. artikulua Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko (UHEI) LPZ onartzen du, eta 9. artikulua IX. Eranskinean azaltzen den Kirolene-Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoko LPZ. 10. artikulua Dantzerti LPZ onartzen du.

11. artikulua Urrutiko Lanbide Heziketako ikastetxe integratua (ULHII) LPZ onartzen du, VI eranskinean dagoena.

Lehen xedapen gehigarriak MURGIA LHIIko 14 lanpostu banakatzen ditu, espezialitate desberdinetakoak, eta MURGIA LHIIIIn integratzen dira.

2., 3. 4. 5. eta 7. xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte.

6. xedapen gehigarria hizkuntz profilen derrigortasunari buruzkoa da.

8.ak lanpostuak hornitzeko prozedura erregulatzen du; 9.ak hizkuntz atzeritarraz irakasten diren espezialitateak arautzen ditu eta 10.ak zenbait postutara iristeko behar diren espezialitateak arautzen ditu. Hamaikagarrenak dio postu guztietan aurkeztu behar dela kondenatuta ez egotearen ziurtagiria, Adin txikikoen Babes Juridikoaren Legearekin bat etorritik.

Azken lehen xedapena errekursoak jartzeari buruzkoa da, eta bigarrenak dio noiz sartuko den indarrean Dekretua.

III.- PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu-proiektu honetan ikastetxe publikoetan 2022-23 ikasturterako jasotzen diren lanpostu-zerrenden multzoa 10.937 lanpostukoa da, hau da, 582 plaza gehiago aurreko ikasturtean baino.

Horietatik 10.249 Bigarren Hezkuntzako kidegoetakoak dira, hau da, aurreko ikasturtean baino 575 gehiago, eta gainerako 688 irakasleak (aurreko ikasturtean baino 7 gehiago) DBHko lehen zikloko maisu-maistren kidegokoak dira.

Bigarren Hezkuntzako eta dekretuan jasotako beste kidego batzuetako LPZ organikoko lanpostuak, ikastetxe motaren arabera. 2021-22 eta 2022-23 ikasturteak.

	2021-22	2022-23	Δ Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasle Kidegoak (BHI)	7.477	7.989	512
Lanbide Hezkuntzako Irakasle Teknikarien Kidegoa (BHI)	1.361	1.427	66
Irakaskuntza Ertainetako Inst. Teknikoetako Irakasle Kidegoa (BHI)	4	3	-1
HEOetako Katedradun eta Irakasle Kidegoak	304	304	0
Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasle Kidegoak	128	133	5
Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasle Kidegoak	28	40	12
HEOetako Lan Kontratudun Langileak	4	4	0
Gradu Ertain. Musika Kontserbatorioetako Lan Kontratadunak	18	16	-2
Arte Eskoletako Lan Kontratudun Langileak	6	5	-1
Erljio Katolikoko Lan Kontratudun Langileak (BHI)	53	52	-1
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak	182	166	-16
Urruneko Hezkuntzako Euskal Institutuko langileak	53	54	1
Kirolene, Kirol Irakaskuntzen Zentroko langileak	14	14	0
Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Mailako Langileak Dantzerti	15	15	0
Urrutiko Lanbide Heziketaren Ikastetxe integratua	27	27	0
Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira	9.674	10.249	575
Maisu-maistren kidegoa	681	688	7
2. Hezkuntzako eta beste batzuetako plantilla organikoak guztira	10.355	10.937	582

*Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako lan-kontratuko langileak ere sartzen dira.

Bigarren Hezkuntzako kidego horien banaketa aztertzen bada, jomugako ikastetxeen artean, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen plantilla organikoak gora egin du 576 lanpostuetan, Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetakoa 3 lanpostuetan eta Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutukoa 1 lanpostuetan. Helduen Hezkuntzako ikastetxeek 16 gutxiago dituzte, eta gainerakoek berdin jarraitzen dute.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko langileei dagokienez, LPZ horretan Donostiako Usandizaga-Peñaflorida – Amara BHiko eta Bilboko Txurdinaga Behekoa BHI eta Ibarrekolanda BHiko irakasleak sartu dira. Gainera, Arte Eskolako irakasleek 3 lanpostu gehiago izan dituzte aurreko ikasturtearekin alderatuta.

Bigarren Hezkuntzako kidegoetako LPZ organikoetako plazen banakapena, jomuga ikastetxearen arabera.2021-22 eta 2022-23 ikasturteak.

	2021-22	2022-23	Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak era beste batzuk	8.895	9.471	576
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak	182	166	-16
Hizkuntza Eskola Ofizialak	308	308	0
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak	146	149	3
Arte Eskola eta arte plastiko eta diseinuko irakaskuntza profesionalak ematen dituzten BHko beste ikastetxe batzuk.	34	45	11
Urruneko Hezkuntzako Euskal Institutuko langileak	53	54	1
Kirolene, Kirol Irakaskuntzen Zentroko langileak	14	14	0
Arte Dramatiko eta Dantzako GMko Langileak Dantzerti	15	15	0
Urrutiko Lanbide Heziketaren Ikastetxe integratua	27	27	0
Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira	9.674	10.249	575

Plantillen **euskalduntzeari** dagokionez, 1,6 puntuko igoera izan da, eta lanpostuen % 83,6k HE2 dute. DBHko maisu-maistren kidegoa (% 95,5) eta HHEko irakasleak (% 96,4) nabarmentzen dira. 2,4 puntu igo da HEOetan eta jaitsi egin da Arte eskolan, baina kontuan hartu behar da orain Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan zenbatzen direla kidego horretako irakasleak. Dantzerti, Kirolene, LHII eta UHEIko irakasle guztiek 2. hizkuntza-eskakizuna dute. Bestalde, erlijioiko irakasleak HE2ko % 98,1era iristen dira.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako LPZ organikoetan 2HE duten lanpostuen kopurua, ikastetxe motaren arabera.2021-22 eta 2022-23 ikasturteak.

Ikastetxe mota		2022-23			2021-22	Δ Azken urtea
		HE2rekin	Guztira	HE2	2HE	
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak	Bigarren Hezkuntzako kidegoak eta beste batzuk	7.901	9.581	82,5	81,5	1,0
	Maisu-maistren kidegoa	657	688	95,5	95,4	0,1
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak		160	166	96,4	96,7	-0,3
Hizkuntza Eskola Ofizialak		270	308	87,7	85,7	2
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak		122	149	81,9	79,5	2,4
Arte Eskola		37	45	82,2	85,3	-3,1
Guztira		9.147	10.937	83,6	82,0	1,6

Kontuan hartzen badugu Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako (BHI) **funtzionamendu plantilla** osoa, ikusiko dugu, Hezkuntza Sailak emandako informazioaren arabera, Bigarren Hezkuntzan 662 irakasle gehiago dagoela.

Maisu-maistren plantillari dagokionez, 24 plaza gutxiago daude. Oro har, 608 lanpostu gehiago daude Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen plantilletan..

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako funtzionamendu plantilla 2021-22an eta 2022-23an

	2021-22	2022-23	Azken urtea
BHko kidegoak eta ordainpeko langileak	9.559	10.191	662
Maisu-maistren kidegoa	747	723	-24
Funtzionamendu plantilla guztira	10.306	10.914	608

Unitate eta ikasle kopuruak gora egin du etapa guztietan, Batxilergoan izan ezik, 5 unitate eta 230 ikasle gutxiago baitaude. Guztira 130 unitate daude eta 1.161 ikasle gehiago aurreko ikasturtean baino.

Ratio guztiek hobera egiten dute, irakasle/ikasgela ratioa 2,67ra igotzen da, ikasle/irakasle ratioa 7,57ra jaisten da eta ikasle/gela ratioa 20,25era.

B1garren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako unitateen eta ikasleen bilakaera etapaka. 2021-22 eta 2022-23 ikasturteetako aurre-matrikula.

Iraileko matrikularen datuak		2021-22	2022-23	Δ Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak	DBH	2.032	2.086	54	%2,7
	Batxilergoa	629	624	-5	%-0,8
	Lanbide Heziketa (EZ, GZ eta OLH eta Espezializazio ikastaroak)	1.189	1.265	76	%6,4
	Hezkuntza Berezia eta AAT, gela itxiak	110	115	5	%4,5
	Unitateak guztira	3.960	4.090	130	%3,3
Ikasleak	DBH	41.143	42.131	988	%2,4
	Batxilergoa	15.747	15.517	-230	%-1,5
	Lanbide Heziketa (GZ, EZ. OLH eta Espezializazio ikastaroak)	24.118	24.472	354	%1,5
	Hezkuntza Berezia eta AAT, gela itxiak	656	705	49	%7,5
	Ikasleak guztira	81.664	82.825	1.161	%1,4
Irakasleak: funtzionamendu plantillak		10.306	10.914	608	%5,9
Irakasle / ikasgela ratioa		2,60	2,67	0,07	
Ikasle / ikasgela ratioa		20,62	20,25	-0,37	
Ikasle / irakasle ratioa		7,92	7,57	-0,36	

IV.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektuko datuen banakatzean ikus daiteke Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako (BHI) plantilla organikoak nabarmen egin du gora 582 lanpostu gehiago.

Funtzionamendu errealeko plantillei dagokienez, 608 plaza gehiago daude. Iraileko matrikula-datuen arabera, 1.161 ikasle eta 130 ikasgela gehiago daude. Horrek esan nahi du ikasle/irakasle ratioa eta ikasle/ikasgela ratioa jaitsi egin direla eta irakasle/gela ratioa handitu egin dela.

Kontseiluaren ustez, oro har, ratioak erreferentziako araudian ezarritakoaren azpitik daude.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2022ko urriaren 27an

IDAZKARI TEKNIKOA

Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURU JAUNA